

GURE SANTA ESKEA

Bosgarren C-ko neska mutilak
zuzendaritzara eske
guk hobekuntzak proposatu ta
zuek jatorrak zarete.

Etxerako lan asko ematen
ez dago eskubiderik
ez zaigu asko gustatzen eta
ez jarri azterketarik.

Ordenagailu eta tabletak
nahi ditugu ikasteko
ondo pasatu denen artean
eta ikasteko asko.

Gimnasio bi ordu nahi ditugu
eta barruakoan egin
eta maisua jatorragoa
ondo pasa elkarrekin.

Txangoak egun batzuetarako
nahi ditugu mesedez
asko gustatzen zaizkigu eta
ezin duzue esan EZ!

Eskerrikasko entzuteagatik
ta mesedez kasu egin
kontuan hartu zelako lana
kostatu zaigunarekin.